

434 zenbakia, 2000ko abenduaren 22a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

dir-dir

Argi, jaiotza eta
apaindura koloretsuz
jantzi da Bergara.
Badatoz **Gabonak!**

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tf: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea 3 (Eskatu edifizioa).
Tf: 943 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Lotus erlojua
AINHOA
Boni Laskurain, 2



Orbea Blank ink bizikleta
BICIPRESICION IGARTUA
Zubieta, 5-7



Jhay zapatak eta
Petit Lulu boltsa
GALARRETA Irizar, 2



Esteve jantziak
GABILONDO
Irala, 5



gabonetan aitzakiarik ez...

Custo jantziak
MAYA
Irala, 2



Barbara baruko arropa
IGARZA
Irala, 5



Burberrys jantziak
MUJKA
San Martin plaza



Gucci betaurrekoak
P. MANSO
Irizar, 2



North Company jantziak
XAMARTIN
Ibargarai, 20



Estazio meteorologikoa
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai, 16



Zone jertsea
ZUBIKUA
Barrenkalea, 24



Gemma barruko arropak
NEREA
Simon Arrieta, 1

inor oparirik gabe lagatzeko

De Beers diamanteak
IRUDI
Ibargarai, 2



Prismatikoak
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai, 16



Loreak eta landareak
NINIKA
Ramon Maria Lili, 8



Jnco jantziak
MOOBY
Kruz Gallastegi, 9

MARGA
jantxidenda

San Pedro 20. Bergara. Tf. 943 76 05 37

Gabonetako eskaintza bereziak

Urte berri ona izan dezazuela!



TORREKUA



ERRETEGIA

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7etatik zabalik

**Zorionak
eta urte
berri on
denoi!**



**Ibargarai, 37
943 76 50 99**



...eta bakea Lurrean

Xabier Azkoitia / Santa Marinako parrokoa

Aingerua artzainengana joan zenean hala omen zioen «...eta bakea Lurrean berak hain maite dituen gizon-emakumeei!».

ETAren gogorkeriaren eraginez beraien familiak txikituta ikusten dituztenak ezin neur daitekeen sufrimendua pairatzen ari dira. Kale Borrokaren eraginez, beraien segurtate pertsonala eta jabegoak arriskuan dituztenak ere ez daude sufrimendu horretatik kanpo. Espetxeratu eta erbesteratuek, alde batetik, eta beraien senideek, bestetik, ez dute sufrimendu gutxiagorik. Hainbat gizon-emakume, nahiz eta edozein biolentziaren aurka izan, atentatuen konplize harzen dira, dituzten ideia politikoen arabera.

ETA ez da jarrera aldaketarik ikusten; ez da ikusten gure gizartean talde edo erakunderik gai izango denik ETAren jarrera aldatzeko ere; alderdi politikoen artean ere ez da ikusten elkarrizketarako jarrera sendorik; ez da ikusten gobernu-agintariengan ere jarrerak hurbildu edo biguntzeko asmorik. Nahaste honen erdian gaude, itxaropena kolokan eta, beraz, denok etorkizuna ilun ikusten dugu.

Gure gizartean zerbait sumatzen bada, zera da: alderdi politikoen arteko elkarrizketa beharra, oinarrizko adostasunera hel daitezen, gatazka honi irtenbide bat bila

diezaioten. Hau gertatzen ez den neurrian, gure herrian itxaropen eza indartzen da.

...eta bakea Lurrean hain maite dituen gizon-emakumeei! Borondate hau eraginkorra den hazia dela uste du kristau fedeak, eta hau da suspertu behar duguna, otoitzez eta bakearen aldeko konpromisoaz.

Hazi hori bakearen aldeko konpromisoaz indartu beharko dugu, baietza sendoa emanaz giza bizitzaren defentsari, eta ezeta osoa ETAk egiten dituen hilketei. Ez dago ideiarik, egitaraurik, ez teoria politikorik giza bizi bat bera ere gogorkeriaz sakrifika-tzea merezi duenik. ETARI behin betiko gogorkeriaren bidea uztea eta bete dezala herri honen gehiengoaren borondatea eska-

«Gure gizartean zerbait sumatzen bada, zera da: alderdi politikoen arteko elkarrizketa beharra. Hau gertatzen ez den neurrian, gure herrian itxaropen eza indartzen da»

tuz. Edozein gogorkeriaren biktima diren guztiengandik hurbil egori behar dugu. Ikasiz edozein gatazkan guztiak dutela arrazoi zati bat, inor ez da egi osoaren jabe, inoren jarrera ezin da dogmatzat hartu; eta beraz, defendatu egin beharko dugu pertsona guztiak eta talde guztiak dituzten eskubideak lege bidez adierazteko, zabaltzeko eta lortzeko bere helburuak. Elkarrizketaren balioa azpimarratu egin behar dugu, denekin egin behar den elkarrizketa. Atzeratu ezinezkoa da pertsonen artean, gizarteko taldeen artean eta talde politikoen artean elkarrizketa izatea. Zubiak eraiki behar dira, eta trintxeren dinamika hautsiko dutenak. Bakea irabazi nahi badugu, eta ez gudu, denok leku izango dugun bizikidetzaz asmatu beharko dugu, bakea lortzeko behar diren amore emate eta uko egiteen ondorioz lortutako bizikidetzaz.

Ezin gara besteak noiz egiten hasiko diren zain egon. Gutariko bakoitzak erein egin behar du bere ekintzez eta hitzez bakearen aldeko kultura, eraildakoen ahaideak edo mehatxatuak babestuz, gurekin bat ez datozenik otzan eta egiz hitz eginez, politikoak elkarrizketara bultzatuz, presoena guraso eta sendikoei laguntza eskainiz.

Eguberri on! Denoi, ezberdin pentsatzen duzuenengandik hasita.<

barruan



Miguel Gz. Bastida

Musika Bandako zuzendari ohia

«Musikara benetan dedikatzeke jaio egin behar da. Ni bai, behintzat»

8.



Asier Elortza

Jolas parkeko koordinatzaillia

«Petardo bat naizela esaten doste; geldigorra naizelako izango da»

14.



Virginia Rubio

Korrikalaria

«Maratoia 20. kilometroan hasten dela diote. Asko entrenatu behar da horretarako»

23.

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Graduondoa.

«Caja Madrid» Fundazioa. 1995 ondoren lizentziadunak. Europar Batasuneko eta EEBBetako Unibertsitate eta Goi mailako Ikerketa zentroetarako gradu ondoko 36 beka. Arloak: Ekonomia, Soziologia, Zientzia Politikoak eta Zuzenbide Politikoak. Epea: 2001eko martxoak 7.

JARDUERAK

Bakea.

Gipuzkoako GGKE. Armen industriak aldatzeko 'Bake Dibidendua' izeneko kanpaina hasi da. Kanpainaren barruan hainbat jarduerara antolatuta dira, erakusketak, hitzaldiak, etab. Abenduaren 30era arte.

Argazki-erakusketa.

Argazkalaritza Elkarteak. Abenduaren 8tik 2001eko urtarrilaren 10era, Argazkalaritza Elkarteak bere egoitzan aurkeztuko ditu XXVIII. Nazioarteko Gipuzkoako sarian saritutako lanak.

IKASTAROAK

Garraioak.

GUITRANS, Gipuzkoako Merkantzien Errepide bidezko Garraio Enpresen Elkarteak. Nazioarteko eta nazioarteko merkantzien garraiolarian lanbide-gaikuntza. Ikastaroak aukera ematen du saioak astegunetan edo larunbatetan egiteko. Epea: Tokiak bete arte.

LAN-ESKAITZAK

Administrari laguntzailea.

Lasarte-Oriako Udala. LH I, Eskola graduatua edo baliokidea. Udak Euskaratze lan egiteko. Epea: abenduak 30.

Bi administrari laguntzailea.

Tolosako Udala. LH I, Eskola graduatua edo baliokidea. Lan jarduna: 20 ordu astero. Epea: abenduak 28.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpeke, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatzoz Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Gabonetako ordutegia:
Abendua:
28 OSTEGUNA, 29 OSTIRALA,
30 LARUNBATA: 9:00 - 13:00
Urtarrila:
4 OSTEGUNA, 5 OSTIRALA: 9:00 - 13:00

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke **Gazte Informazio Gunera** igortzea zuten ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaitzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. **Mila esker.**

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Bale-baleka

Gorde-gordeka; haur jolasa. Batek kontatu -pagau- egiten du, besteak bitartean ezkatuta egiten dira eta **bale!** esandokoa bila hasten.

- Bale-baleka ibilliko ga?

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Abenduak 14, eguena	12 °C	8 °C	11,1 l/m ²
Abenduak 15, eguakitzeta	11 °C	4 °C	8,6 l/m ²
Abenduak 16, zapatua	11 °C	5 °C	- l/m ²
Abenduak 17, domeka	12 °C	0 °C	- l/m ²
Abenduak 18, astelehena	16 °C	8 °C	- l/m ²
Abenduak 19, martitzena	16 °C	7 °C	- l/m ²
Abenduak 20, eguaztena	12 °C	2 °C	- l/m ²

mezak

Santa Marina
Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.
San Pedro
Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.
Osintxu
Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.
Elosu
Domekak: 10:00.
Ubera
Domekak: 10:30.
San Juan
Domekak: 11:00.
Basalgo
Domekak: 13:00.
San Prudentzio
Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.
San Pedro
Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
Labegarieta/Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

txandak

FARMAZIAK

EGUAKITZA 22:
PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87
ZAPATUA 23:
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05
DOMEKA 24:
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05
ASTELEHENA 25:
ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63
MARTITZENA 26:
MOZOS. San Pedro 4... 943 76 12 15
EGUAZTENA 27:
CAMACHO. Oxirondo 4... 943 76 11 74
EGUENA 28:
PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87
EGUAKITZA 29:
GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05
ZAPATUA 30:
ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63
DOMEKA 31:
ESTELLA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

OGIA

ZAPATUA 6 Ogizun
DOMEKA 7 Konde
Abenduaren 25ean eta urtarrilaren
1ean ez da ogirik egongo

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Anbulatorioa (txanda) ... 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa ... 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa ... 943 76 62 46
Ertzaintza ... 943 76 53 40
Osasun Etxea ... 943 76 24 40
Angiozarko medikua ... 943 78 90 27
Antzuolako medikua ... 943 76 62 23
GARRAIOAK
Taxiak ... 943 76 19 50
UDALA
Bergarako udaletxea ... 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea ... 943 76 62 46
Kultur Etxea ... 943 77 91 58
Liburutegia ... 943 77 91 62
Kiroldegia ... 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza ... 943 76 13 68
BESTELAKOAK
Epaitegia ... 943 76 14 92
Erregistroa ... 943 76 13 15
Jardun ... 943 76 36 61
Idolaz ... 943 76 65 08
Jubilatu Etxea. Bergara ... 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuen elk. ... 943 76 62 71

zorionak!



Unai Garmendia
31n 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, batez ere,
Izaro.



Jose Luis Garmendia
31n urteak. Urte askotarako!
Etxekoak, batez ere, Izaro.



Olatz eta Oier Barragan
26an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eukene Labaka
8an 6 urte.
Urte askotarako!
Markel.



Josu Moncaiola
22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Auskalo nor.



Mireia Olabarria
28an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Eneritz Axpe
3an 11 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Urko Sarobe
27an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Cristina Souto
22an 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jennifer De Oliveira
27an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Blazquez
26an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
familiakoak.



Leire Balanzategi
29an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Unai.



Amaia Bolinaga
26an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Garazi Plazaola
23an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak, batez ere,
Joanes.



Asier Laria
30ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Andoni Ducun
10ean 7 urte.
Urte askotarako txapeldun!
Maria eta Laura.



Mikel Martinez
8an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Marisa
eta Yanire.



Nerea Bernal
28an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Markel Belastegi
25ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Varela
29an 2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta
aitona-amonak.



Asier Sampietro
9an 5 urte.
Urte askotarako!
Malen eta beste
guztiak.



Belinda
23an bueltan!
Ongi etorri,
ordua zen!
Lagunak.



Iosu Irizar
24an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Unai eta
Leire.



Amaia Arana
22an 5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, familia-
koak eta Ander.



Jabier Oiarzabal
9an urtebetetzea.
Zorionak aitxiz!
Nora eta Aritz.

*Hurrengo alean,
Gabon ostean,
urtarrilaren 12tik 18ra
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

OHARRA

*Gabonetako oporrak direla eta,
urtarrilaren 12an jasoko duzue
hurrengo Berrigara.
Ordu arte, izan zoriontsu
eta ondo hasi milurtekoa!*

**AGOITZ
tapiz denda**

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

ARREGI

**Eraikuntza
materialak**

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tf. 943 76 27 93

Berriro zuekin!



Zorionak eta urte berri on!

Simon Arrieta plaza. 943 76 20 61

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
943 76 50 68

**BERGARA
MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

80 urte bete ditu aurten go irailan Miguel Gonzalez Bastidak, irailaren 26an hain zuzen ere. Hamar urte zituela bandan hasi zen flautina jotzen, eta ordutik hona musikari eskaini dizkio bere indarrak. Bihar, zapatua, omenaldia eskainiko diote Gabonetako kontzertuan, bere ibilbidea eskertuz.

G. Pozik egongo zara zapatuan omendu egingo zaituztelako.

E. Bai, oso pozik. Izan ere, omenaldia egiten badidate, musikan egindako lana aintzat hartzen dutelako da. Eta aintzat hartzen badute arrazoiren bat dagoelako da.

G. Aurten 80 urte bete dituzu. Horietako asko eta asko eskaini dizkiozu musikari.

E. Irailaren 26an bete nituen 80 urte. 1930ean, hamar urte nituela, hasi nintzen Udal Musika Bandan. Orduan, flautina jotzen nuen, eta bandako zuzendari gure aita zen garai hartan.

Gerra piztu zen eta kanpora alde egin beharra izan genuen. Melillan soldadutza egin ondoren, Bergarara bueltatu nintzen, 1941. urtean. Zehazkiago, abuztuaren 15ean, Ama Birjinaren egunean. Horrela, Bergaran egonik, bandako zuzendariorde izendatu ninduten, eta 11 urtean egon nintzen karguan, 1952. urte arte. Urte hartan aitak 70 urte zituen eta erretiratu egin zen.

G. Eta aita erretiratu zenean zuri eskaini zizuten banda zuzentzea.

E. Bai. 1952. urtean bertan. Eta lan horretan jardun izan dut 1986a arte, erretiratu nintzen urtea arte, hain zuzen ere.

Beraz, 45 urte eman di-

MIGUEL GONZALEZ BASTIDA
Udal Musika Bandako zuzendari ohia

«Musikara benetan dedikatzeko jaio egin behar da. Ni bai, behintzat»



Lau anai izan ditu Miguel Gonzalez Bastidak, guztiak zuzendariak.

tut Bergarako Udal Musika Bandan: lehenengo 11, zuzendariorde bezala, eta 34, zuzendari.

Zuzendariorde izan nintzen garai hartan asko ikasi nuen: zuzendariordearen lana zuzendaria ez dagoenean haren lana betetzea da. Zoritzarrez, gure aita askotan egoten zen gaixorik erreumak jota, eta askotan

«Zuzendari batek ezinbesteko du taldeko kideak ondo ezagutzea. Baita musikariak zuzendaria ere. Horrela, musika egingo dute»

egin behar izan nuen zuzendari lana. Asko ikasi nuen orduan. Horrela, 1952an, batuta hartu nuenean, ia guztia nekien.

G. Ikasi zenuen gauzarik garrantzitsuenak?

E. Musikoaren izaera ezagutzen. Izan ere, ezinbestekoa da musikoak ongi ezagutzea taldeak aurrera egin dezan. Noski, musikoek zuzendaria ere ezagutu behar dute. Eta bakoitzak bere tokia zein den jakin behar du.

G. Arestian aita aipatu didazu, baina musikari gehiago zarete familian.

E. Bost anaia izan gara eta arreba bat, eta bost anaiak zuzendariak: Jose Mari, Ramon, Iñaki, Jesus eta neu. Arrebaren kasuan, emakumezkoak zuzendari izateko ohiturarik ez zegoen lehen. Agian, gaur izango zatekeen, ohiturak aldatzen ari direlako.

Eta orain, Alfredo, nire semea ere zuzendaria da.

G. Konpositore eta organista zara. Orfeoiko zuzendari ere izan zara.

E. Gauzatxoren bat konposatu dut, eta orfeoiko zuzendari hamabost urtean izan naiz. Gabonetako kontzertuan eskainiko dugun *Carmina Burana* guk moldatu genuen. 1971n hartu nuen orfeoiko zuzendaritza eta 1972an antolatu genuen obra hori lehenengo aldiz. Organista 59 urte eman ditut. Bandako zuzendariorde zatez hartzean aitak utzi zidan organista postua, bera 33 urtean egon ondoren.


G. Bergaran zaletasun handia dagoela uste duzu?

E. Bai, inoiz ez dut nik horrelako zaletasunik ikusi. Oso pozgarria da. Baina, guztiz musikara dedikatzeko jaio egin behar da. Txikia nintzenean ez ninduten behartu. «Musikoa izan nahi duzu?», galdetu zidaten. Nik baietz erantzun nuen.

Igerilekuak itxita, berogailuaren hodi zati bat erori delako sabaitik

Joan den egubakoitzetik daude itxita igerilekuak, 14:30ak aldera sabaian dagoen berogailuaren hodi zati bat erori zen unetik. Itxiera mugarik gabekoa da, udalak oraindik ezin baitu ziurtatu berogailuaren egoera.

Igerilekuak irekita zeuden berogailuaren hodi zati bat erori zenean. Egubakoitz eguerdia zen, eta bi lagun ari ziren igerian une hartan. Hala ere, ez da zauriturik egon. Eroritako zatiak hiru kilo inguru pisatzen du, eta igerileku handira erori zen. Hodiarekin batera, sabai za-



Argazki handian, hodi zatiak erortzean utzitako zuloa. Txikian, hodi zati bat.

ti bat ere erori zen. Igerilekuetako arduradunek berehala itxi zuten igerilekua eta oraindik ere horrela jarraitzen du. Mugarik gabe, gai-

nera, igerilekuko arduradunek ezin baitute ziurtatu berogailuaren instalazioaren egoera zein den une honetan.

EGOERAREN AZTERKETA


Gauzak horrela, enpresa bat kontratatu du udalak, berogailuaren instalazioa aztertu eta egoeraren txostena egiteko. Azterketak luze joko du udal arduradunen arabera. Noiz irekiko diren ere ezin dute ziurtatu. Urte berriarako karnetik ere ez da oraindik egingo.

Ondorioz, herritarrek ezin izango dituzte igerilekuak erabili. Bai, ordea, igerilekuetan dauden gimnasia, squash eta bestelako zerbitzuak.

Gertatutakoagatik, aurtengo Gabonetan ez da egongo udalak antolatu ohi duen umeendako ur-jolasik.

Xabier Zabaleta izan liteke EAJ-EAko zinegotzi berria, Alberdiren orde

Horixe da, behintzat, koalizioak hauteskunde-batzordeari proposatu dion hautagaia. Onartzen badu, Zabaleta, koalizioaren zereendako hurrengoa, Kultura batzordearen baruko Jarduerak, Taldeak, Gazteria eta Jaiak azpibatzordeko buru izango da. Iñigo Alberdik, oraingo zinegotziak, urte amaieran utziko du kargua, lan-arazoengatik.



Xabier Zabaleta.

Narvaizako arduradunek enpresaren itxiera gezurtatu egin dute

Izan ere, enpresa aste honetan itxtekoak ziren zurrumurrua zabaldu da. Enpresako ordezkariak, baina, gezurtatu egin dute zurrumuru hori. Eurek esandakoaren arabera, duela bi urtetik hona egoera larrian dago lantegia, baina ez da itxiko. Eta gaineratu dutenez, "ahalegin guztiak egiten ari gara enpresa aurrera ateratzeko".

Narvaizan 180 langile daude: 135 Bergaran eta 45 Gasteizeko lantegian. Azaroan eta abenduan ez dute soldatarik kobratuko. Azken bi urteetan %80 kobratu dute. Bestalde, enpresa batzordeak enplegua erregulatzeko espedientea aurkeztu du INEMen. Onartuz gero, martxoaren 5a arte lanik gabe egongo dira langileak, baina langabezia kobratuz.

Agirrebeña

IAETEXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi, 2-behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

**Etxebizitza berriak
Antzuola erdialdean**

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak

EAJ-EAk A-8a diru iturri izatea nahi du

A-8 autobidea doakoa izateko mozioa aurkeztu zuen EHk asteleheneko osoko bilkuran. Mozioa ez zen onartu. Bai, aldiz, EAJ-EAk aurrekoari aurkeztutako mozio alternatiboa.

Bi mozioak antzekoak dira, baina puntuetako bate-

an desberdintasun nabaria dute. EHk A-8 autobidea doakoa izan behar dela uste du. EAJ-EAk, aldiz, hauxe eskatzen dio Diputazioari: A-8an egin beharreko obrak nola finantza daitezkeen aztertzea, eta era berean, errepidea bera diru iturri izatea.



A-1eko lanak 2001eko azaroaren 15erako amaituta egongo ei dira. ARTXBOA

Guk Geure Eskola eta AEKrekin bat

Asteleheneko osoko bilkuran onartutakoaren arabera, bat egin du udalak Guk Geure Eskola kanpainarekin eta AEKrekin. PPko gobernuak aurkeztu duen erreformaren ondorioz sortu da Guk Geure Eskola kanpaina. Horren aurrean, EAJ-EAk ardatz hauetan oinarritutako adierazpena egin du: adierazpenean informazio falta salatzen du; hau da, ikastetxe, irakasle,

guraso, ikasle eta hezkuntza erakundeak informatu ez izana. Horrez gain, hezkuntzaren antolaketa demokratiko baten alde, inguruan errotutako hezkuntza baten alde eta hezkuntza berdinzale baten alde egiten du, hainbat gauzaren artean.

Bestalde, Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak AEKren kontra hartutako neurriak ere salatu ditu.

Irukurutzetako parke eolikoari alegazioak

Udalak lau alegazio egin dizkio Eusko Jaurlaritzari. EAEn energia eolikoa ekoizteko instalazioak baimentzea arautzen duen dekretu proiektuari, hain zuzen ere. Jaurlaritzaren proiektuaren arabera, Irukurutzetako mendilerroan parke eolikoa kokatuko litzateke.

Hori horrela, lau alegazio hauek aurkeztu ditu udalak: bategatik, parke eolikoak jartzeko, tokian tokiko ingurumen baldintzak azter daitezela; bestetik, Irukurutzetan jarri nahi den parkea egiteko, hango ingurumenean izango duen ebaluazioa egitea; horrez gain, baita Jaurlaritzako planean aurrez ikusi gabeko instalazio berriek ingurumenean izan dezaketen eragina aztertzea ere; eta azkenik, parke eolikoren baten eraikuntza atzera botatzeko, ingurumen arazoak kontuan har daitezela.


ELKAR fotokopiak

Arruriaga 1, behea. Tf. eta faxa 943 76 58 16.

Fotokopiak
Plastifikazioak DIN A4 eta DIN A3
Fax zerbitzua
Enkuadernazioak
Eskolarako materiala

Planoen kopiak CDetara
Planoen eskaneoa eta ploteoa
Kautxozko zigiluak
Faszikuluen enkuadernazioa
Eta **KOLORETAKO FOTOKOPIAK LASERREAN !**

Argitapen honen edizioko laguntzaile:

 **kutxa**

*gizarte-ekintza
obra social*

Gaur, egubakoitza, ireki dute Ibargaraiko aparkalekua

Gaur goizean ireki dute Ibargarai kaleko aparkaleku publikoa. Behin-behineko ireki dute. Izan ere, oraindik udalak ez du erabaki aparkalekuaren gestio bidea. Hala eta guztiz ere, luzera jo dezakeela-eta, Gabonetan irekitzea erabaki dute, udaleko iturrien araber. Gutxienez bi hilabetean egongo da horrela aparkalekua, nahiz eta epe zehatza jakiterik ez dagoen.



Aparkalekuak 64 toki ditu eta egun osoan egongo da irekita.

ARTXIBOA

DOAKO APARKALEKUA

Oraingoz, gestio bide hori erabaki arte, aparkalekua doakoa izango da, eta egun osoan zehar irekita egongo da. Hala ere, goizeko 8etatik gaueko 10ak arte ezin

izango da bi ordu baino gehiagoan autoa aparkalekuan utzi. Udaltzainek ziurtatuko dute neurri hori betetzen den edo ez. Gaueko 10etatik aurrera ez da den-

bora mugarik egongo, eta goizeko 8ak arte autoa parkingean uzteko aukera egongo da. Aparkalekuak 64 toki ditu solairu bakaurrean.

Kale bilkura San Martin plazan

Hilaren 15ean eta 21ean, hainbat lagun baturu ziren San Martin plazan, 12:00etan, ETaren azken bi hilketak salatze-ko: Terrasan Francisco Cano PPko zinegotzia eta Bartzelonan Juan Miguel Gervilla udaltzaina.

Liburutegiaren ordutegia

Gabonetan 08:00etatik 13:30era egongo da irekita Udal Liburutegia, jai egunetan izan ezik. Errege ostetik aurrera, 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik, eta zapatuetan 09:00etatik 13.00etara.

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina



Banatzaile ofiziala

Berrigara

434 zenbakia.
2000ko abenduaren 22a.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetz: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketa: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo,
Juan Martin Eléxpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: A. Iturbe.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

atrebentzia ezpada

Gabonetan etxia apaintzeko ohiturarik badaukazu? Zelan apaintzen dozue?



Maite Garitano

Bai; zuhaitza jartzen dogu,
eta aldamenian, kaltzetañia.
Zuhaitzian bolak eta
panpintxuak jartzen
dittugu.



Jose Jabier Rodrigo

Bai; jaiotza jartzen dogu
urtero. Batez be,
umiengaittik jartzen dogu.



Luis Muñoz

Ez; sekula ez dogu ezer
jartzeko ohiturarik izan.
Umia hazten danian, igual
jartzen hasiko gara, eskatu
egingo dau eta.



Julian Del Mazo

Bai; orain zuhaitza jartzen
dogu. Orain dala urte
batzuk arte jaiotza be
jartzen giñuan, baiña umiak
hazi dira eta...



Beatriz Larrañaga

Seme-alabak hazi arte jar-
tzen giñuan; orain, jaiotza
bakarrik. Aurten ez dakitt
ezer jarriko dogun be,
iaz apurtu egin jaten eta.



Ane Iburguren

Bai; jaiotza eta zuhaitza
jartzen dittugu, urtero-
urtero.

tira biraka peru azkarate





Jardun eta Berrigara urtebetetzea ospatzen

Jakingo duzuenez, joan den egunean, **hilak 14**, hamar urte bete ziren BERRIGARAREN lehen aleak argia ikusi zuela. Jardunek ere duela hamar urte ekin zion euskararen aldeko ibilbideari. Hori ospatzeko, asteburuan egitarau berezia antolatu zuten. Alde batetik, ohiko BERRIGARAREKIN batera, **ale gehigarria** ere banatu zen, berezia. Bestetik, egubakoitz gauean **La arrabalera** kabaretaria eta **Doro** ipuin kontalaria izan genituen Zabalotegin. Eta zapatuan **erakusketa bat eta umeendako hainbat jolas** plazara eraman zituen Jardunek. Hainbat herritar ibili zen asteburuko ekitaldi hauek guztiak antolatzen eta Jardunek eskerrak eman nahi dizkie denei. Zorionak, bada, eta jarraitu euskararen aldeko jardunean!

Dotoreak erakusleihoak!

Udalak urtero antolatzen duen **erakusleiho lehiaketako irabazleen izenak** badakizkigu dagoeneko. Honako hauek izan dira euren erakusleihoak txukunen apaindu dituztenak: **Alga** perfumeria, **Kilika** dekorazioa, **Ninika** loradenda, **Gisasola** burdindegia eta **Manso** optika (argazkian). Zorionak, denoi!



Fagor, saria ospatzen

Bergarako **Sagarpe elkarte**an afaria egin zuten Fagorrekoek, enpresari eman berri dioten saria ospatzeko. **Lan Osasunaren eta Segurtasunaren Europako Agentziak eman dio saria** Fagor Elektragailuetako estanzazio zentroari, muskulu eta hezurretako minak ekiditeko neurriak hartu dituelako, makina berriak diseinatu eta jarri. Zorionak, bada, eta segi horrela!

Ipiñarri

zerrategia S.L.

IBARRA z/g. 20570 BERGARA. TELEFONOA: 943 76 15 93.



Altzariak
Aroztintza
Eraikuntza
Enbalajea

Asierrek 28 urte dauzka eta Heziketa Fisikoan lizentziatua da. Bergarako Udalak antolatzen dabon jolas parkian koordinatzaile lanetan dabil iaztik. Eskolaz kanpoko kirol jarduerak eta gimnasia eskoliak be emoten ditu.

Asier Elortza

Noiztik Gabonetako jolas parkian begirale?

Begirale moduan, orain dala sei zazpi urtetik. Koordinatzaile lanetan, berriz, iaztik.

Umezalía izango zara, ezta?

Bai, asko gustatzen jat umiak.

Zeu txikixa zñaneko Gabonen ze oroitzapen daukazu?

Onena, oporrak geunzkala, eta gustatzen jatena egiteko denporia neukala.

Horrelako parkerik bazeguan?

Ez dot uste; ez naiz, behintzat, akordatzen.

Olentzerori ze eskatu jatzu?

Orain ja ez jat ezer eskatzen. Hala be, espero dot, ekarriko dostela zer edo zer.

Gabonetatik, ze da gehixen gustatzen jatguna?

Senidiekin eta lagunekin egotia.

Eta gutxien?

Montatzen dan *parafernalia* guztixa, eta, batez be, konsumismua.

Norabait juateko asmorik badaukozu?

Ez, oraintxe Kubatik etortzia egin dot.

Ze moduz? Ze bidaia egin dozue?

Oso ondo. Santiagotik La Habana bizikletaz jun gara.

Zelan definituko zñuke zeure burua?

Petardo bat naizela esaten doste.

Geldigorra naizelako izango da.

Urtaro bat?

Udabarrixa edo udazkena, edozein.

Usain bat?

Mendixan egoten dan bedar usaiña.

Denpora librian ze egittia gustatzen jatzu?

Batez be, kirola egittia, edozein kirol. Eta irakurtzia be asko gustatzen jat.

Irakurri dozun azken liburua?

A China en bicicleta.

Ikusteko, ze kirol gustatzen jatzu?

Kirola praktikatzia gehixago gustatzen jat, baiña bat esatekotan, txirindularitza; Tourreko etapa guztiak ikusten ditut.

Ze musika mota gustatzen jatzu?

Jazza eta countrya.

Musika talde bat?

Bela Fleck jazz taldia, eta Dwight Yoakam, countryan.

Pelikula bat?

Una historia verdadera, David Lynch zuzendarixana.

Telebista, irratixa ala egunkarixa?

Telebista eta irratixa, baiña ez jat asko gustatzen.

Telebistako saio bat?

Los Simpsons eta dokumentalak bakarrik ikusten ditut.

Bukatzeko, urte berrixari ze eskatuko zontsake?

Osasuna eta bakia.



COMERCIAL BRUNET

SALMENTA ETA KONPONKETA



Zorionak denoi!

Debagoieneko eta Debabarreneko banatzaile ofiziala:



Zorionak denoi!

Ozaeta, 11/13-behea - BERGARA (Gipuzkoa). Tel. 943 76 31 52 - Tel./faxa 943 76 70 12 - Sakelakoa: 670 824 976

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45



SANTOS IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10



KONDE PANADEROKUA

10 urte zuekin



Burdiñate.




Ogia egiten.



Toki Eder.

Eskerrik asko denoi

Antzinatik datorren tradizioa



1910eko hamarkadan.



Alkorta okindegia.

KONDE PANADEROKUA:

- Etxean egindako ogia
- Gure oreak betiko modu naturalean eginda daude
- Ogi bereziak
- Baserriko ogia
- Eskaintza zabala

Jaiegunetan ere zabalik

Burdiñate, 1. Tel. 943 76 02 57.
Toki Eder plaza, 3. Tel. 943 76 14 87.



u d a l a i t z

A R R A S A T E

erdiko kale 42 • arrasate • tel.: 943 77 00 68

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 70. zenbakia. 2000ko abenduaren 22a.

AKE-k Barkero omenduko du

Abenduaren 23tik 30era bitartean hainbat ekitaldi egingo dira

Urtebete da Xabier Barkero auto istripu baten ondorioz hil zela. Eta Antzuola Kirol Elkartek (AKE) omenaldia egitea erabaki du. Astebetez hainbat ekitaldi antolatu dituzte, Antzuolako futbol taldeko jokalaria izan zena gogora ekartzeko.

Xabier Barkero I. futbol torneoarekin hasiko da AKERen omenaldi astea. Xabier Barkero Antzuola futbol taldeko jokalaria zen eta taldean pisu handia zuen pertsona ere bai. Orainxe urtea beteko da hil zela eta hori gogora ekarriz, Antzuola Kirol Elkartek astebetez omenduko du Xabier Barkero. AKEkoek adierazi digutenez, «izenburuak esaten duen moduan, hau lehen urtea da, baina gure asmoa horrela jarraitzea da: urtero antolatzea Xabier Barkerori omenaldia».

Xabier Barkero I. futbol torneoaren abenduaren 23an hasiko da eta Xabier Barkerok berak futbolearen aurkari izan zuten taldeetako batzuk hartuko dute parte txapelketan. Goizeko 11etan Zestoia B Kirol Elkartea eta Aurrera Ondarrua futbol taldeek jokatuko dute. Arratsaldeko 16:00etan, berriz, Antzuolako eta Urolak jokatuko dute. Partida guztiak, jakina, Estala futbol zelaietan jokatuko dira.

GABONETAKO I. FUTBITO TXAPELKETA

Areto futbol txapelketa ere antolatu dute AKEkoek. Abenduaren 26an hasi eta 30era bitartean, bederati eta hamalau urte arteko neska-mutikoen artean jokatuko da eta bi mailan arituko dira: A mailan 12, 13 eta 14 urtekoek hartuko dute parte eta B mailan, berriz, 9, 10 eta 11 urtekoek.



Xabier Barkero Antzuola futbol taldeko jokalaria izan zen urte askoan.

Abenduaren 30ean amaituko da futbol txapelketa. Goizeko 11etan futbito txapelketaren finala jokatuko da eta arratsaldeko 4etan, berriz, Xabier Barkero I. futbol torneoaren finala jokatuko da. Sari banaketarako Realeko jokariak gonbidatu dituzte AKEkoek eta euren emango dizkiete garaikurrak bi txapelketako irabazleei.

KIROLAZ GAIN

Lehenengo omenaldi horretan, kirolaz gain, bestelakorik ere antolatu dute.

Abenduaren 28an mahai ingurua egingo dute zine aretoan. *Oinarrizko kirola: eskolatik kirol taldera* izenarekin, kirol arloan ezagunak diren hainbat pertsona elkartuko dira: Jesus Mari Zamora eta Juan Antonio Larrañaga, Realeko jokari ohia; Ribera Realeko eta Coruñaako Deportivo jokari ohia eta Xabier Azkargorta futbol entrenatzaile ohia eta ETBko Sorginen Laratza saioan futbolaz aritzen dena. Mahai ingurua arratsaldeko 7etan izango da. Moderatzaile lanetan Herri irratiko Iñaki de Mujika esataria ibiliko da. ■



Futbola, futbitoa eta mahai ingurua antolatu dituzte Xabier Barkero omentzeko

Olentzerori abestera bi aldiz irtengo dira Gabon bezperan

Gabonak egun bereziak direla esatea topiko bat errepikatzea da; baina horregatik, hain justu, egun bereziak direlako, hainbat ekitaldi egingo dira herrian. Olentzero, esaterako, herriko kaletan zehar ibiliko da Gabon bezperan, haur eta helduekin batera.

Gabon bezpera herriko ikastetxeko neska-mutikoez eta irakasleek hasiko dute. Jakina, gurasoak ere ez dira falta izango. Goizeko 11etan, urtero egiten duten kalejira herriko eta alaiarekin emango diote hasiera euren festari. Errekalde auzoan daukate hitzordua, eta, txistulariak lagun, Gabon kantak entzun eta abesteko aukera ederra izango dugu. Jakina, hitzordu honetara ez da faltako Olentzero. Izan ere, umeen esku-titzak jasoko ditu goizean goizetik eta horrez gain, goxokiak banatuko ditu. Herri osoan gora eta behera ibili ondoren, Maristetako zelai gorrian bukatuko da kalejira.

AMNISTIAREN ALDEKO OLENTZERO

Hurrekin egindakoa ez da izango Olentzerok egingo duen bisita bakarra. Arratsaldean ere antolatuta dute hainbat ekitaldi, kantatzera atera eta lagun giroan afari aurea modu ezinhobean pasatzeko. Amnistiaren Aldeko Batzordekoek 17:30ean egin dute deia Olentzerorekin



Herriko neska-mutikoez goizeko 11etan dute hitzordua Olentzerorekin.

auzoz auzo abesteko eta dirua batzeko. Bide batez, Jose Luis Erostege "Eltzikorta"ri eta euskal preso guztiei elkartasuna adierazi nahi diete. Amnistiaren Aldeko Batzordekoek Gabonetarako ere badiutuzte beste ekitaldi batzuk. Eguberri egunean, 13:30ean, Zurrategin elkarteko deia egin du eta abenduaren 26an, gauza bera egingo dute 19:30ean. Kontzentrazioaren ondoren, lau eguneko itxialdia hasiko dute udaletxean. Abenduaren 30ean amaituko da itxialdia

13:00etan eta ondoren manifestazioa egingo dute. Itxialdian zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte: bideo emanaldiak, hitzaldiak, bilkurak...

KORUKOAK ERE KANTUAN

Gabon giroa zabala eta anitza dela adierazteko, Eguberri egunean, abesbatzakoak ere aterako dira kantuan egitera. Eguerdian aterako dira kantari koadrilan eta era guztietako Gabon kantak abestuko dituzte.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Jose Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

Olentzerok bi bisita egingo ditu Antzuolara:
goizeko 11etan eta arratsaldeko 17:30ean



Liburuaren aurkezpenean jende dezente elkartu zen udaletxean.

Larru ontzeari buruzko liburua

Domekan aurkeztu zuen Antxon Aguirre Sorondok *Antzuolako larru ontzea* liburua. Aurkezpenean, Mireia Unamuno herriko alkatea, Jose Luis Kortabarria Kultura, Euskara, Kirola, Gazteria eta Hezkuntza batzordeko lehendakaria eta Iñigo Ramirez de Okariz, liburuaren koordinatzailea izan ziren.

Aguirre Sorondoren liburua, *Antzuolako Udalak* sortutako *Antzuola Herria* bekaren beste emaitza bat da, hirugarrena, hain zuzen. Aurkezpenean, idazleak bere lana egiteko izan duen laguntza eskertu nahi izan zuen eta baita jasota

ko «lan kolektiboa» ere. Bere hitzetan, liburua «liburu pedagogikoa da, argazki eta mapaz osatua...». Irakurtzeko erraza dela azpimarratu nahi izan zuen.

Antzuolako larru ontzea liburua 1.500 pezetan jarri da salgai.

Jendetsua izan zen aurkezpene eta liburuaren aurkezpenarekin batera, argazki eta tresneriaren erakusketa ere antolatu zuten, hura ikustera ere jende dezente joan zen. Erakusketa abenduaren 23an eta 24an ere egongo da ikusgai. Ordua: 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etarik 20:30era.



Aguirre Sorondoren 'Antzuolako larru ontzea' liburua 1.500 pezetan dago salgai



JOLAS PARKEA

Gabonetako oporretan, neska-mutikoak ez aspertzeko jolas parkea jarriko dute herrian. Urtarrilaren 3an, eguaztenez, herriko pilotalekuan jarriko dute umeendako jolas parkea. Denetik egiteko aukera izango dute: jolas-tu, ikasi, ondo pasatu... Goizeko 11etan ireki eta eguerdiko ordu bata arte egongo da zabalik. Arratsalde, berriz, 15:30etik 17:30era zabalduko da.

SAGASTI, HERRIKO AUZO BERRIA

Herrian egiten ari diren auzo berriak badiena izena: Sagasti. Joan den asteko osoko bilkuran erabaki zuten izen hori jarritzea. Hiru proposamen egon ziren: Euskal Herria, Ondargain eta Sagasti.

Ondargain proposamenak ez zuen boturik jaso eta beste bi izenen artean egon zen lehia. Euskal Herria izenak hamahiru botu eskuratu zituen eta Sagastik, berriz, hamabi. Hala ere, osoko bilkuran elkartutakoek Sagasti izena aukeratu zuten. Dirudienez, Telleriatarekin eta Olarandarrek 'el manzanal' deitzen zioten etxeak egin diren lursailari. Eta ez hori bakarrik, antza denez, jabeek ez zituzten hango sagarrrak jasotzen eta herriko haur guztiak joaten omen ziren hango sagarrrak jasotzera. Hori gogora ekartzeko Sagasti deitu diote auzo berriari.

URTE ZAHAR ETA URTE BERRI EGUNETARAKO MENDI IRTEERAK

Urtero moduan, Arrola mendizale elkarteak urteari bukaera emateko mendi irteera antolatu du. Urte Zahar egunean, hain zuzen ere, Aizkorrira joango dira goizeko 8etan, Herriko plaza-tik irtenda. Hurrengo egunean, urtarrilaren lehenean, Arrolara igoko dira mendi goizaleak, urtea ondo baino hobeto has-teko. Egun horretan ere Herriko plaza-tik aterako dira goizeko 9etan. Gora iristen diren guztiendako txistorra eta salda egongo dira Arrola gainean, indarrak berreskuratzeko. Hantxe banatuko dute datorren urteko Arrolaren programa ere.



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua

**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94

Udaletxeko muralak


Udaletxea zaharbertitzeko lanak direla eta, eskaileraren aurreko horman egin nahi den freskoaren proposamenekin erakusketan egongo dute abenduaren 29tik 31ra bitartean. Zazpi proposamen jaso dira. Epaimahaiak urtarrilaren 12an hartuko du erabakia. Irabazleak 500.000 pezetako dirusaria jasoko du lana egiteko. Bisita orduak: 12:00-14:00 eta 15:00-20:00. Ondoren agertzen diren izenburuak (letra lodiz), egileek erabilitako ezizenak dira. Argazkiak: Valen Moñux.



Abenduak 10
Herriko plazaren ikuspegi koloretsua.




LayS
Antzuolako harmarria.




Iragana eta oraina
Eraikinen, uraren, zuhaitzen eta bestelakoen marrazki geometrikoak.




Altsasu
Antzuolako gajak estilo figuratiboan.



Erreka
Herriko ibaia gai hartuta, detailez osatutako paisajea.



Sedimentuak
Baserri girotik industriara jauzia.



Antzuolaren ikuspegi abstraktua
Elizako dorrea, zuhaitz abstraktu batez lagunduta.



Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



MARKIEGI
autoak



Leizeaga 1. BERGARA.
Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76

Alfa 147: 2001 urteko autorik onena Europan.



(Bergara barne!)

Arantza
Erlojutegia

*%25eko beherapena
denda ixteko*

Barrenkalea, 4. 943 76 10 04

adituen esanetan

Feng Shui

Feng Shui milaka urte dituen zientzia txinatarra da, eta ingurune naturalaren interpretazioan oinarritzen da. Hitzez hitzeko itzulpena honakoa da: haizea eta ura.

Txinatarrek bizitzako alderdi guztietan lantzen dute: elikaduran, medikuntzan, arkitekturen, lorezaintzan...

Zientzia honetan oinarrituta, gure bizitzarako onuragarri izango zaizkigun diseinu, irudi eta sinboloak aukeratu ditzakegu.

Gaur egun, gu eroso sentiarazteko erabiltzen da gehienbat. Hori lortzeko ematen dizkigun aholku batzuk oinarri-oinarrizkoak dira. Baina, beste batzuei ez diegu zentzurik aurkituko, Feng Shui beraren oinarriak jakin eta inguruneak guregan zelan eragiten duen ulertu arte. Feng Shuik gure bizitzan ditugun arazoak ulertzen laguntzen digu eta, bide batez, horiek konpontzeko bideak aurkitzen. Horretarako, oso garrantzitsua da CHI, espazioetan hara eta hona dabilen energia, hain zuzen.



OIHANA BERISTAIN


Interiorista

"Zientzia txinatar honek gure ingurunearekiko armonia eta oreka lor ditzagun aholkuak ematen dizkigu"

Material naturalak erabiltzea oso inportantea da; formei dagokienez, biribiltasunak garrantzi handia dauka, CHIren zirkulazioari laguntzen dio eta. Ispiluak ere inportanteak dira txinatarrentzat. Izan ere, ispiluek energia geratzea ekiditen dute. Espazioaren funtzioaren arabera, koloreak garrantzi handia du. Orientazioak, forma, materialak, kokapena, argitasuna... Horiek guztiak aztertzen dira Feng Shuian.

Feng Shuik oso kontuan hartzen ditu gaur egungo gizartearen alderdi guztiak: teknologia modernoak, erabiltzen diren materialek, eta atmosferara botatzen diren gaiek eragiten dituzten kalteak, bizitzeko era modernoak honetaz guztiaz hausnartzeko uzten digun denbora eskasa...

Feng Shuik gure ingurunearekiko harmonia eta oreka lortzeko aukera ematen digu. Gure etxe, lorategi eta bulegoetako energia berrabiatzeko espazioak sortzen ere laguntzen digu.



Erabiltzen diren formek, koloreek, materialek eta abarrek Feng Shui ona lortzen laguntzen digute.

bergarako errotak



ELOSUKO ERROTARAR

Elosu auzoan errotarik egon zen esaten duen libururik ez dugu aurkitu: ez 1802ko «Diccionario-Histórico-Geográfico del País Vasco», ez 1826ko «Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y Portugal» liburuan, eta ezta 1845eko Madozen «Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus Posesiones de Ultramar» obran ere ez dago inongo aipamenik.

Hala ere, errota bat topatu dugu ikerketa askoren ondoren: Errotazar.

Garai bateko Bolintxu baserriaren ondoan zegoen, Ormolamendi auzoan.

Bolintxu-errekako urez baliatzen zen; gaur egun, errota horren aztarna gutxi batzuk geratzen dira, sasi artean.

Ezin izan dugu jakin noiz utzi zion errota izateari, inork ez duela ikusi funtzionatzen.

KOKAPENA: Azkoitiatik Elosuarako bidean, Elosuako elizatik 1,1 kilometrora, errepidearen ezkerrealdetik irtetzen den mendi-bidea hartu, Corta baserriaren ondoan dagoena, eta baserri horretatik 500 metrora, inor bizi ez den Bolintxu baserriaren ondoan.

Antxon Agirre Sorondo

B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 609 54 16 13 • **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **LASKURAIN HORTZ KLINIKA.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 • **TRIPALDI Enrike.** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 • **BASTERRETXE, Maria.** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **HOMEOPATA: SUSANA GANUZA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 21 62 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

Osasunez bizi izateko!

Argi eta kolore

Gaur bertan piztuko dira herriko kaleetan jarri diren argiak, eta datorren urtarrilaren 7a bitartean egongo dira piztuta. Garai batean

zuhaitza jartzen bazen ere, gaur egun argiak jartzea nahiago du udalak. Izan ere, orduan kexa bat baino gehiago jaso zuen udalak basoetatik zuhaitzak ekartzen zirelako. Hala, duela hamar urtetik hona herriko erdialdeko kale gehienak hainbat irudi argitsurekin apaintzen dira. Frontoiko fatxadan, azokako sarreran, herriko lau sarrera irteeratan eta auzoetan ere jartzen dira argiak. Rufina Olasagasti Kultura teknikariak azaldu digunez, "argiekin herria apaintzea lortu nahi dugu, eta, bide batez, herriari Gabon giroa ematea".

JAIOTZAK

Udaletxeko sarreran, berriz, esan bezala, jaiotza dotore bat jartzen dute Simon Arrieta Zeramika taldekoek duela lau urtetik. Aurtengoa Maria Jesus Manzisidorrek, Nerea Madariagak eta Maria Lucia Silvak egin dute. Jaiotzaren ondoan, berriz, han dago Olentzero, patxada askoan.

Santa Marina parrokian ere jartzen dute jaiotza eder askoa. Orain dela 60 urte baino gehiagoko ohitura da. Saiatu garen arren lehen aldiz noiz jarri zuten jakiten, ez dugu jakiterik izan. Hala ere, Juanito Idigorasek esan digunez, gutxien-gutxienik badira 60 bat urte. Jose Antonio Agirrezabalek eta semeak, Mikelek, prestatzen dute duela hamar bat urtetik.

BIDEKURUTZETAKO ZUHAITZA

Orain dela 35 urte hasi ziren Gabonetako zuhaitza jartzen Leturia harategikoak, Agirre jantzi dendakoak eta Idarretakoak. Juan Mari Leturiak esan digunez, "Bergaran ez zen ezer jartzen, eta

Aspaldiko urteetan bezala, apaindu zaigu herria



Dotore-dotore apaindutako zuhaitzak, jaiotzak, kaleetako argiak...nonahi ikus ditzakegu Gabonak gainean ditugula gogorarazten dizkiguten xehetasunak. Etxe askotan ere badago zuhaitzak eta jaiotzak jartzeko ohitura. Udaletxeko sarreran jaiotza eta Olentzero jartzen dira, baina, gaur egun, kaleetan jartzen diren argiak bilakatu dira protagonista.

1. A. ITURBE

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

**Kataide poligonoa, 6.pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08**

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

horregatik, pentsatu genuen polita izango zela bidegurutzean zuhaitz handi bat jartzea". Lehenengo urtean bertan "etxea adinako" zuhaitz handi bat jarri ei zuten. Juan Marik ondo gogoratzen du zelan izan zen: "Aramaion izeki handi bat erosi genuen. Arregi arotzak bota zuen pinua eta Abrainek ekarri zigun kamioian", diosku Juan Marik.

Laupabost urtean jarri zuten zuhaitza hiru dendari hauek. Handik aurrera Bergarako Udalak hartu zuen ardura.

Nahikoa lan hartzen zuten dendariok; izan ere, ahalik eta zuhaitzik handiena topatzen ibiltzen ziren. Juan Marik dioskunez, "urte batean Luis Agirrek Apatamonasterion izeki handi-handia ikusi zuen. Bi aldiz pentsatu gabe, hara joan, erosi eta sekulakoak egin ondoren, ekarri genuen azkenean zuhaitz hori".

Baina, zuhaitza jarriz gain, Leturiaren etxean megafonia bidez Gabon kantak ere jartzen zituzten. Lehen urte hartan argitaratu berri zen Raphaelen 'El tamborilero' diskoa jarri ei zuten, baina baita euskarazko Gabon kantak ere.

GURE AMETSAREN EKIMENA

San Antonioko elkarte honek hainbat ekimen antolatu izan ditu. Oraingo honetan jaiotza bat jartzeko ideia izan dute. Esan eta egin. Jesus Jauregik esan digunez, "jaiotzak jartzeko ohitura galtzen doala ikusi dugu; horregatik hartu genuen hau egiteko erabakia. Gainera, umeei ilusio handia egiten die". San Antonioko biribilean bertan txabolatxo



1. Leturia, Agirre eta Idarreta dendetakoek 1965ean jarri zuten lehen aldiz Gabonetako zuhaitza Bidekurutzetan.

2. Duela hiruzpalau urtetik, jaiotza eta Olentzeroren irudia jartzen dira udaletxeko sarreran. Simon Arrieta Zeramika taldekoek jartzen dute.

3. Santa Marina parrokiaren ere urte asko dira jaiotza jartzen dutela. Azkenengo hamar bat urtean Jose Antonio Agirrezabal arduratzen da berau prestatzeaz, Mikel semearen laguntzarekin.

Duela hirurogei urte baino gehiago jartzen da jaiotza Santa Marinaran

bat jarri dute, eta hantxe, jaiotza. Iru-diak Itziar Ibartzabalek egin ditu.

Gure Ametsa elkartekoek ideia izan den arren, auzokide askok lagunduta jarri dute jaiotza hau. Udalak San Antonioko sarreran jarri ohi duen arku argitsuaren ordez, biribileko bi zuhaitzak apainduko ditu, Gure Ametsak egindako proposamena onartu ondoren.<

izeder

ARTE DEKORATIBOKO
ikastaroak

943 76 71 05. Arruriaga 2

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Gallastegi

Jostundegia

Lanerako mahoizko jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09



Zorionak eta
ondo pasa!

21.

menderako
alda
ezazu
zure estiloa

leapaindegi
mistoa eta
estilistak
Espoioia 4, behea.
943 76 72 76

Bergarak hirugarren partidua galdu zuen jarraian Baskoniaren aurka

Hirugarren mailako

Bergarako futbol taldeak merezimendu osoz galdu zuen zapatuan Baskonia taldearen aurka (0-2). Juanina Garairen mutilek ez zuten gol aukera bat ere izan eta bizkaitarren menpe izan ziren. Bergarak hainbat jokalarri garrantzitsuren falta nabaritu zuen eta ez zuen bere maila erakusterik izan Agorroingo zaleen aurrean. Lehen zatia 0-1eko emaitzarekin bukatu zen, 40. minutuan Lopez Garaik buruz sareetara errematatu ondoren. Bigarren zatirako Garai mahoneroen entrenatzaileak, Iñigo Iriarte eta Pako Santiago, Joseba Duran eta Gorka



Bergarako taldeak Zamudioren aurka jokatu du zapatuan.

ARTXIBOA

San Vicenteren ordeztu zela, baina taldearen jokoak ez zuen hobera egin. Partidua amaitzeko ordu laurden falta zela, Ar-

kaitz Aranek izan zuen etxe-koen aukerarik onena, baina Lopez Baskoniaren atezainak bere errematea gelditu zuen. Eta 82. minu-

tuan bizkaitarrek, kontraerasoan, bigarren gola egin zuten.

Azken hiru partiduetan galdu ondoren, Bergara sailkapeneko 10. tokian dago, 23 punturekin. Zapatuan laugarren dagoen Zamudiori bisita egingo dio.

Oteiza Saria

Baskoniaren aurkako partiduan honako jokalarri hauek nabarmendu ditugu:

Aritz Arabiourrutia 3 puntu

Mikel Osoro 2 puntu

Markel Egaña 1 puntu

Etxeko partiduetan bakarrik hartzen dira kontuan.

karteldegia

PILOTA

Herriko Gabon saria

Benjamin eta senior mailan:

Domekan, 16:00etan Pilotalekuan

Alebinak:

Martitzenean, 19:00etan

Pilotalekuan

Gabon saria

Finalak hilaren 29an jokatu

dira, 15:30etik aurrera, Udal

Pilotalekuan.

GABONAK

Gabonak direla eta, astebukaeran ez da egongo futbol, eskubaloia eta saskibaloia partidurik Bergaran.

Goju-Ryu taldekoak bikain Zaragozan

Bergarako Goju-Ryu karate taldeko kideek emaitza bikainak lortu zituzten astebukaeran Zaragozan jokatu Espainiako borroka-arten txapelketan. Gerriko zuritik marroira bitartean, 84 kilotik gorako kategorian, Iñigo Ugartek lehen postua lortu zuen eta Oskar Torres, aldiz, laugarren sailkatu zen. Salva Gonzalez bergararren entrenatzailea oso pozik zegoen bere ikasleek lortutakoarekin, eta Oskar Torresek finalerako sailkatzea merezi izan zuela adierazi zigun. Bestalde, Jose Luis Martinez Luque ere txapelkun izan genuen 84 kilotik beherako kategorian. Eta pisu erdiastunean, Unai Garmendia hirugarren izan zen, gerriko marroitik gorako artean. Gaur egun, 20-25 urte bitarteko 15 bat lagun ari dira Goju-Ryu taldean. Gonzalezen hitzetan, "sorpresa atsegina izan da Zaragozan lortutako emaitza".



telkar

CASIO erlojuak

telkar

Erlojuen konponketa • 2 urteko garantia • Pila aldaketa

Ibargarai, 2. 943 76 27 11

VIRGINIA RUBIO/ Korrikalaria

“Gasteizko erdi-maratoian ez nuen Behobian bezain gustura korrika egin”

Virginia Rubio (26 urte) hirugarren izan zen Zumaia-ko Zakila Bira (20 Km.) korrika proban, nesken kategorian. Aurten, lehenbiziko aldiz ari da lehiatzen eta orain arte emaitza onak lortu ditu. Domekan Gasteizko erdi-maratoian hartu zuen parte.

G. Zumaian trofeoa eskuratu zenuen...

E. Bai, ez ginen partaide asko (220 inguru) eta nesken artean hirugarren postuan heldu nintzen. Igerilekuetan entrenatzen ibiltzen diren mutil batzuekin batera joan nintzen ia ibilbide osoan, eta horrek asko lagundu zidan marka ona egiteko.

G. Zelan hasi zara lehiatzen?

E. Urte guztia daramat entrenatzen. Aspalditik neukan Behobia-Donostia egiteko asmoa eta asmo horrekin hasi nintzen. Beldur pixka bat ere bannuen, baina gauzak uste baino hobeto atera zitzaizkidan, eta hortik aurrera, gustura nenbi-

lenez, beste hainbat probatan izan naiz.

G. Zer moduz domekan?

E. Nahiz eta Behobia-Donostian baino denbora hobe egin (ordubete eta 38 minutu), ez nuen hain ondo bukatu. Hasieratik, hankek ez zidaten erantzuten eta ez nuen gustura korrika egin.

G. Bergaran neska gutxi aritzen zarete korrikan...

E. Ez dakit, bakarkako kirola da eta jende gehienari aspergarria iruditzen zaio. Ni Antzuola-ko neska batekin ibiltzen naiz lasterketetan eta igerilekuan oso giro ona dago korrika ibiltzen den jendearen artean.

G. Astean zenbat aldiz entrenatzen zara?

E. Behobia-Donostia gertatzeko, astean bost egunetan joaten nintzen, baina orain lasaia go nabil. Argirik ez dagoenez pena da Bergaran entrenatzeko toki aproposik ez egotea.

G. Urte bukaeran San Silvestrean parte hartzeko asmorik?

E. Ez, egun horretan, aspalditik, Aizkorriera joateko ohitura daukagu eta ez dut uste parte hartuko dudunik.

G. Eta datorren urteari begira?

E. Behobian parte hartu nahiko nuke eta horretarako entrenatuko naiz batik bat.

G. Maratoia gehiegizkoa da?

E. Hankak eta burua oso ondo eduki behar dira. Izan ere, maratoia 20. kilometroan hasten dela esaten dute. Asko entrenatu behar da horretarako.



Joseba Herran, txapeldun

Joseba Herran BKEko pilotariak 22-17 irabazi zion Intxaurrendoko Yuberori, Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako finalean.

Ikastaroa Elgetan Gabonetan

Ikastaroa antolatuko dute eskola-kirolako monitoreentzako abenduaren 26an, 27an eta 28an Elgetan, goizez. Izen-ematea (doan) Kirol Zerbitzuan.

Kiroldegiko ordutegia

Labegarrietako Kiroldegia abenduaren 24an eta 31n itxita izango da. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean zabalik. Ordutegi berezia izango du: argibideak, kiroldegian.

Columbia
Sportswear Company.

2ND SKY

HH
HELLY HANSEN

S
SIMS



Snowboard

egiteko behar duzun dena daukagu

Gabonetan ondo ibili eta urte berria ondo hasi!

BOLINTXO KIROLAK

lbargarai, 10.

943 76 38 32



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek gabon zoriontsuak eta urte berri ona opa dizkie bezero guztiei

Zurradero 6, behea
Telefona: 943 76 70 67 Mobila: 607 48 71 19

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte, 12. Bergara. 943 76 22 96

VW Golf GT 1.6				*2
Peugeot 205 1.4			3 ate	*2
Renault 19 1.7 TXI			3 ate	*3
Opel Astra 1.4				*4
Renault 19 1.9 Diesela				*4
Opel Astra 1.6				*5

AUTOLEYMA. Aitziturri, 5. Bergara. 943 76 09 30

Peugeot 406 SR 1.8			AG-ABS-Airbag	*7
Peugeot 306 XSI			AG-ABS-Airbag	*7
BMW 318 ci			AG-ABS-Airbag	*8
BMW 320			AG-ABS-Airbag	*8
Peugeot 306 XRD			AG	*4
Peugeot 205 Diesela				*3


BERRIA GARAJEA. Amillaga, 49. Bergara. 943 76 22 96

Ford Fiesta 1.1 Trip 3	SS-AN	1992	IK-3 ate	*2
Seat Toledo 1.8 GT Sport	SS-AL	1992	AG-IE-IK-IZ-KE-LD-AH-ABS	*3
Ford Mondeo RS V6	SS-BG	1999	AH-IE-IK-IZ-KE-KL-LD-LK	*7
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD-KE-IZ-IE-AH	*3
Ford Orion 1.6 Ghia	SS-AD	1989	IK-LD-AG-IE-IZ	*1
Peugeot 306 1.4 XN	SS-AW	1996	3 ate	*4

A: Aleroja AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haginak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000-3.000.000 PTA
 *8: 3.000.000 PTatik aurrera



Automobilaren
 karburazio eta
 elektronika



Uribarri etorbidea 16.
 Arrasate. 943 79 73 58



Garibai Etorbidea, 5
 Tel.: 943 79 22 96
 ARRASATE

Larrinjan

GIDARI ESKOLA

ARRASATE ARETXABALETA

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
 Tel.: 943 79 64 50
 ARETXABALETA

DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
 943 76 03 97

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

CHAPIME TAILERRAK. San Andres auzoa, 5. Arrasate. 943794522

Opel Vectra 1.7d GL	BI-3467-BL	1992	LD-IZ-KE	*3
Opel Astra 117td GL	SS-9632-AT	1994	LD-IZ-KE-Airbag	*4
Citroen Xantia 1.6x	SS-7692-AS	1994	LD	*4
Citroen Xantia 1.9td sx	GI-9297-AW	1994	LD-IZ-KE-AG	*5
Renault Clio 1.9d	SS-3128-BG	1999	LD-IZ-KE-BI Airbag-AG-Hifi mandoa bolantean	*5
Peugeot 405 1.7td SRDI	SS-4019-AM	1992	LD-IZ-KE-AG	*2


TALLERES MECA. San Andres, 8. Arrasate. 943 71 21 67

Citroen Xantia 2.0 HDI 90 CV SX		1999		*7
Nissan Primera Stilo 2.0 TD		1999		*7
Renault Megane 1.9 DTI RXE		1999		*7
Renault Clio 1.6 Si		1999	5 ate	*5
Renault Twingo Pack		1999	AG	*5
Renault Clio 1.9d RN		1999	5 ate	*5
Renault Megane Alize		1999	AG	*6
Citroen Xantia 1.9TD SX Climat		1994		*5
Peugeot 306 Coupe DT		1997		*5
Renault Espace 2.2i Helios		1994	AG	*5

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84



**SAN MARTIN
KARROZERIAK**

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu!




Txorno

Auto-errekanbioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

**DENA
AUTO**

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97



**AUTO DESGUACES
BERGARA**

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)


**BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA**

PENAKOBA



Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
ARRASATE ONATI

DENA AUTO BERGARA



bonofotoa

Zein kaletan dago bi argazkiotan ikusten den etxe hau?

galde debalde

1. Gehienez, zenbat denbora eduki daiteke autoa lbargaraiko aparkaleku publikoa?


- A- 2 ordu
- B- 3 ordu
- C- Ordubete

2. Aurtan Bergarako Udaletxean dagoen jaiotza nork egin du?

- A- Simon Arrieta taldeak
- B- Itziar Ibartzabalek
- C- Jose Antonio Agirrezabalek

3. Zein da Bergarako Goju-Ryu karate taldeko entrenatzailea?

- A- Oskar Torres
- B- Salva Gonzalez
- C- Juanina Garai



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Julian Unamunoren** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Juliani!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Ola Lizarmendi**

Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Codorniu
CAVA EXTRA
sikua / erdi sikua / brut

675 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Herriko musika taldeek Gabonetako kontzertua eskainiko dute pilotalekuan

Urtero bezala, Gabonak hasteko, kontzertua antolatu du udalak. Bigarren atalean 'Carmina Burana' entzuteko aukera izango da. Herriko taldeez gain, Soraluze eta Arrasateko abesbatzek ere parte hartuko dute. Kontzertua Udal pilotalekuan izango da, gaueko 10etan.



Zapatuan 140 musikari inguru bilduko dira Udal Pilotalekuan.

dv

Bi atal izango ditu Gabonetako kontzertuak, ohi den bezala: lehenengoan, Udal Musika Banda eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak 'Mendia eta Itsasoa' eskainiko dute. Zuzendaria Alfredo Gz. Chirlaque izango da. Aritzeta Abesbatzak 'Shenandoah' eta 'Errekatxo kantaria' eskainiko ditu. Zu-

zendari Imanol Urtzelai arituko da. Azkenik, Bergarako Orfeoia 'Stabat Mater' abestuko du, David Azurtzaren zuzendaritzapean.

Lehenengo ataleko obra guztien egilea, 'Shenando-

ah' obrarena izan ezik, Miguel Gz. Bastida musikoa da. Izan ere, Gabonetako kontzertuan musikari bergararra omentzeko parada ezin hobea ikusi dute antolaitzaileek. Omenaldiarekin,

Gz. Bastidaren lana eskertu nahi dute, musikari eskaini dizkion urteengatik.


'CARMINA BURANA'

Emanaldiaren bigarren atalean Carl Orff konpositorearen 'Carmina Burana' lana eskainiko dute, Miguel Gz. Bastidak moldatuta. Bergarako taldeez gain, inguruko herrietako abesbatzak ere izango dira, errefortzu gisa. Bergararik: Udal Musika Banda, Orkestra Sinfonikoa, Aritzeta Abesbatza, Orfeoia, Orfeoi Gaztea, San Joxepeko Abesbatza eta Umoroa Taldea. Kanpotik, Arrasateko Goikobalu Abesbatza eta Soraluzeko Ezoziko Ama Abesbatza. Zuzendaria, Miguel Gonzalez Bastida izango da.

XVI. mendeko familia-artxibo garrantzitsua erosi du udalak

Bergarako Iturbe familiaren artxiboa erosi du Udal Agiritegiak Logroñoko liburu denda batean, 2.500.000 pezetan. Agiritegiko arduradunen hitzetan, oso aurkikuntza garrantzitsua da. Izan ere, XVI eta XVII. mendeko Bergarako datu historikoak jakiteko aukera eskainiko du.

Gainera, artxiboa oso ondo kontserbatuta dago, eta 1700. urte arteko familiaren ibilbidea eta garaiko bizimodua jakiteko aukera eskaintzen du. Testamentuak, inbentarioak, salmentak, ezkontzak eta familiaren inguruko beste hainbat datu biltzen ditu artxiboak.



Artxiboko dokumentoak, ohi ez bezala, oso egoera onean kontserbatu dira.

Irala 3
Telefona: 943 76 48 26

IRRINTZI
k a f e t e g i a

ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA



Lagun Artea abesbatza, 1963

Gabonak gainean ditugu eta domekan hainbat talde kalera irtengo dira, Gabon kantak eskaintzera. Goiko argazkian agertzen direnek Lagun Artea abesbatza osatzen zuten 1963an, eta On Nicomedes Larrañaga zena zen beraien zuzendaria. Ondoren, talde horretatik Alai taldea eta geroago Aritzeta abesbatza jaio zirela esan daiteke. Alai taldeko lagunak en-

tseetzen izan ditugu azken egunotan eta, ohiturari jarraituz, domekan herriko kaleak alaituko dituzte.




Honako hauek dira argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Goian: Alberto Egidazu, Ismael Arrieta, Pello Garitano, Iñaki Arriaran, Angel Boro-bia, Justo Idigoras eta Jose Antonio Aperribai.

Beherago: Ignacio Gillegi, Ramon Iraegi, Mateo Salaberria, Luis Mari Belastegi, Javier Lizarralde, Javier Zezeaga eta Jose Ignacio Uribesalgo.

Aurreko ilaran: Joxe Arrieta, Javier Ena, Javier Amenabar eta Jose Alberto Muñoz.

Argazkia: Jose Antonio Aperribai

-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



3.000.000 ibilgailu baino
gehiago aseguratuta
lasai-lasai errepidean



Problemarik gabe

Egin kontuak! 2.400 bulego, 12.000 lagun zure zerbitzura, 4.000 konponketa gune



MAPFRE

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

Zeuk jarri muga



1.470.000 pezetatik aurrera. BEZ; matrikulazioa Prever-ekin; eta promozioak barne.



Alai Garajea

943 76 22 96. Urarte 12, Bergara.
Peugeot zerbitzu ofiziala

Jean Paul Gaultier kolonia
AMAIA
Barrenkalea, 25



Pelutxeak
JOLAS
Barrenkalea, 27



Urre konbinatua eta brillantiak
ETXEBERRIA
Bidekurutzeta, 16

Via
digital

Via digitala
ZAIAZKO
Telesforo Aranzadi, 3

gabonetan aitzakiarik ez...

Calvin Klein barruko arropa
ANEZKA
Espoloia, 8



Altzari eta osagarriak
KANELA
Espoloia, 10



Diab'less jantziak
MAYA
Irala, 2




Pultsometro digitala
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai, 16

Ese Oese jertsea
IKUSBI
Irala, 5



Poltsa eta osagarriak
GARNISH
San Pedro, 12




Lee kazadora eta prakak
PRAKAK
Burdiñate, z/g



Teres barruko arropa
GANTXEGI
Telesforo Aranzadi, 2

inor oparirik gabe lagatzeko

Patrikako iparrorratza
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
Ibargarai, 16



Perfume eta osagarriak
ALGA
Ibargarai, 10



Columbia oinetakoak
LAZKANO
Barrenkalea, 15-17



Home-less jantziak
MAYA
Irala, 2

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko bainugela berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/ prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



Jakina, zurekin pentsatzen



6 URTEKO GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.